

DIRUZAINZA KUDEATZEKO ERAGIKETA OSAGARRIAK

2025_2026 PROGRAMAZIOA

AURKEZPENA:

Lanbide-modudula:	DIRUZAINZTA-KUDEATZEKO ERAGIKETA OSAGARRIAK		Kodea CMC	Kodea IVAC	Kodea Ordutegian
			ADGA209	0448	DEO
Heziketa-zikloa:	ADMINISTRAZIO KUDEAKETA				
Maila:	ERDIA				
Lanbide-arloa:	ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA				
Ordutegia:	147	ordu			
Taldearen kodea:	Irakasleak (izen-abizenak)				Irakaslearen Kodea Ordutegian
2GADE	LAURA AZANZA GIL				LAAZA

1. MODULUAREN HELBURUAK

- Informazio-fluxua eta enpresan erabiltzen diren dokumentuen eta komunikazioen tipologia eta xedea aztertzea, dokumentu edo komunikazio horiek bideratzeko.
- Dokumentuak eta komunikazioak formatu bereizgarrian eta kalitate-baldintza egokiekin egitea, eta dokumentu eta komunikazio horiek lantzean informazioaren tratamendu-teknikak aplikatzea.
- Diruzaintzaren kudeaketan esku hartzen duten elementuak, oinarritzko finantza-produktuak eta -zerbitzuak eta horiekin lotzen diren dokumentuak alderatzea eta ebaluatzea, administrazio-kudeaketak egiteko enpresaren likidotasun- eta finantziaziobeharrak egiaztatuz.
- Finantza-produktuen eta -zerbitzuen oinarritzko kalkuluak egitea, eta diruzaintzako administrazio-kudeaketak egiteko oinarritzko finantza-matematikaren printzipioak erabiltzea.
- Komunikazioak ahoz, telematikoki edo idatziz transmititzea, kasu bakoitzera egokituz, eta enpresaren edo erakundearen kalitatearen eta irudiaren alorreko protokoloak aztertzea, bezeroei edo erabiltzaileei arreta emateko jarduerak betetzeko.

2. GAITAZUNAK

Baloratuko diren konpetentziak konpetentzia teknikoetan eta zeharkakoetan banatzen dira.

2.1. IKASKETA EMAITZAK

- Diruzaintza kontrolatzeko metodoak aplikatzen ditu, eta haren faseak deskribatzen ditu.
(Enpresan ere landuko da)

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresan diruzaintza kontrolatzeko metodoak eta funtzioa deskribatu ditu.
- b) Diruzaintzako fluxuen sarrera- eta irteera bereizi ditu: kobrantzak eta ordainketak, eta horiekin lotzen den dokumentazioa. (Enpresan ere landuko da)
- c) Diruzaintzako liburuak eta erregistroak bete ditu.
- d) Kutzako kontaketa egiteko eta saldoak adosteko prozesuaren eragiketak egin ditu, eta desbideratzeak hauteman ditu.
- e) Bankuko kontu-laburpenetako informazioa bankuaren erregistro-liburua erkatu du.
- f) Epemugen egutegiaren utilitateak deskribatu ditu, finantza-aurreikuspenari dagokionez. (Enpresan ere landuko da)
- g) Diruzaintzako zerbitzua eta gainerako sailak, enpresak eta kanpo-entitateak lotu ditu.
- h) Dokumentuak fisikoki aurkezteko baliabide telematikoak, administrazio elektronikoko baliabideak eta ordezeko beste bitarteko batzuk erabili ditu. (Enpresan ere landuko da)
- i) Informazioaren arduraren, segurtasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioen arabera egin ditu prozedurak. (Enpresan ere landuko da)

2- Enpresan erabiltzen diren finantzaketarako, inbertsiorako eta horrelako zerbitzuetarako finantza-tresnak kontratatzeke, berritzeke eta ezabatzeko izapideak egiten ditu, eta hoietako bakoitzaren xedea deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espainiako finantza-sisteman diharduten antolakundeak, entitateak eta enpresa motak sailkatu ditu.
- b) Finantza-erakundeak zehaztu ditu –bankuak zein bankuak ez direnak–, eta horien ezaugarri nagusiak deskribatu ditu.
- c) Espainiako finantza-sistemaren barruan dauden merkatuak bereizi ditu eta enpresan erabili ohi diren finantza-produktuekin lotu ditu.
- d) Finantza-bitartekarietako bakoitzaren funtzio nagusiak zerrendatu ditu.
- e) Bankuetako eta banku ez diren entitateetako finantza-tresna nagusiak bereizi ditu eta horien ezaugarriak deskribatu ditu.
- f) Enpresaren aseguru motak eta aseguru-kontratu bat osatzen duten elementuak sailkatu ditu.
- g) Bankuetako finantza-bitartekariak eskaintzen dizkiguten oinarrizko zerbitzuak eta horiek kontratatzeke beharrezko dokumentuak identifikatu ditu.

- h) Inbertsioko finantza-tresna batzuen errentagarritasuna eta finantza-kostua kalkulatu du.
- i) On-line bankuko bitarteko telematikoak eta antzekoak erabili ditu.
- j) Enpresan ohikoak diren finantza-produktuak kontratatzearekin, berritzearekin eta ezabatzearekin lotzen diren askotariko dokumentuak bete ditu.

3- Oinarrizko finantza-kalkuluak egiten ditu, eta dagozkion finantza-legeak identifikatuz eta aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kapitalizazio sinpleko eta eguneratze sinpleko finantza-legeak bereizi ditu.
- b) Finantza-tresnen interes sinplea eta interes konposatua kalkulatu du.
- c) Finantza-tresnen deskontu sinplea kalkulatu du.
- d) Mota horretako eragiketetan denboraren eta interes-tasaren eragina deskribatu du.
- e) Bereizi egin ditu zenbateko nominalaren eta interes-tasa efektiboaren edo urteko tasa baliokidearen kontzeptuak.
- f) Enpresan ohikoenak diren finantza-produktuen komisio moten ezaugarriak bereizi ditu.

4- Oinarrizko banku-eragiketak egiten ditu, eta lotzen den dokumentazioa interpretatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Banku-kontu bat eta kreditu-kontu bat metodo ohikometodoekin likidatu ditu.
- b) Efektu-negoiazio baten likidoa kalkulatu du.
- c) Mailegu-eragiketetan esku hartzen duten aldagaiak bereizi ditu.
- d) Maileguaren kuota osatzen duten kontzeptuak zerrendatu ditu.
- e) Maileguak biderik ohikoenetatik amortizatzeko sistemaren ezaugarriak deskribatu ditu.
- f) Mailegu sinpleak ohiko metodoen bidez amortizatzeko taula kalkulatu du.
- g) Bankuko finantza-eragiketak eta kapitalizazio sinplea, konposatua eta deskontu sinplea lotu ditu.
- h) Finantza-produktuak kostu/errentagarritasun aldagaien arabera alderatu ditu.
- i) Bankuko sistema eragilearen berariazko informatika-tresnak erabili ditu.

2.2. ZEHARKAKO GAITASUNAK

Ikaskuntzaren emaitzen zeharkako alderdia eta ikastetxean definitutako zeharkako gaitasunak kontuan hartuta, honako gaitasun hauek landuko dira:

- Errespetua (E)
- Inplikazioa (I)
- Autonomia (A)
- Komunikazioa (C)
- Gaitasun digitalak (D)

Errespetoa	Inplikazioa	Autonomía	Komunikazioa	Digitalizazioa
.- materialak, ekipoak eta instalazioak zaintzen ditu .- kideak, irakasleak eta zentroan dauden veste pertsonak errespetatzen ditu .- institutoaren eta gelaren arauak errespetatzen ditu (mobil eta tabakoarena barne)	.- proposatutako jardueretan parte hartzen du .- jarduerak ahalik eta gehien egiten saiatzen da .- jardueren entregatze data betetzen du .-gelara garaiz etortzen da .- gutxi falta da eta egiten duenean, justifikatzen du	.- erabakiak hartzen ditu .- erabakien ondorioak onartzen ditu .- ezustezoen aurrean irtenbideak aurkitzeko gai da .- kritika erabakitzaileak onartzen ditu .- autokritika egiten du	.- idatzizko adierazpen argia, egituratua eta koherentea .- gramatika eta ortografia ona .- ahozko azalpen argia eta egituratua .- bolumen egokia .- ikus-kontaktua ezartzen du .- gorputz-jarrera egokia	- Erronka bakoitzean zehaztuko da kalifikazioa. - Landu eta kalifikatuko diren konpetentziak: 2.3-3.3-4.1-5.1

3. DENBORALIZAZIOA

Programatutakoa ematearen adierazle gisa, kontuan hartu behar da Unitate Didaktikoak edo erronkak aurreikusitako ebaluazioan eta ikastaroaren guztian eman diren ala ez. Unitate Didaktiko edo erronka bakoitzerako adierazten diren ORDUAK ikasturte guztizko "haztapenaren" adierazle dira eta araudian aurreikusitako oinarritzko iraupenak biltzen dituzte. Denbora errealeko konpromisoa "Ikasgelako Jardueren Koadernoan" jasoko da, ikasle talde bakoitzaren erritmora beharrezko egokitzea eta ikasgelatik kanpoko egoeretara egokitzea eta ikasleentzako aberasgarria kontuan hartuta.

**IKASTAROAN BANATZEKO ORDU GUZTIAK
TOTAL DE HORAS A DISTRIBUIR EN EL CURSO**

147

I Eranskineko taulan ikusi unitate didaktiko edo erronka bakoitzean landuko diren ikasketa emaitzen ebaluazio irizpideak, zeharkako gaitasunak eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH).

4. JARDUERA ESANGURATSUAK ETA EBALUAZIOAREN ALDERDI KRITIKOAK

1. Diruzaintza kontrolatzeko metodoak aplikatzea:

- Diruzaintza kontrolatzeko funtzioa eta metodoak deskribatzea, sortzen diren desbideratzeak hautematea eta ez aplikatzearen ondorioak identifikatzea.
- Diruzaintzako sarrerako eta irteerako fluxuak bereiztea.
- Informazioa dagokien liburuetan erregistratzea.
- Bankuko eta kutxako kontrola: bankuko berdinkatzea.
- Diruzaintzako kudeaketako berariazko informatika-tresnak erabiltzea.

2. Finantzazio, inbertsio eta zerbitzuetako oinarrizko finantza-tresnak bideratzea.

- Finantza-merkatuan dauden finantza-tresnak eta sortzen dituzten finantza-erakundeak bereiztea.
- Merkataritzako kobrantza eta ordainketako dokumentuen xedea eta edukia deskribatzea: letra, txekia, zor-agiria, ordainagiria, transferentzia eta horien baliokide telematikoak.
- Finantza-tresna batzuen errentagarritasuna eta finantza-kostua kalkulatzeko.
- On-line finantza-kudeaketako informatika-aplikazioen funtzioak deskribatzea.

3. Oinarrizko finantza-kalkuluak egitea:

- Oinarrizko finantza-eragiketak kalkulatzeko.
- Kapitalizazio sinplea eta konposatua eta diruzaintzako kudeaketako eragiketetan duten erabilera bereiztea.
- Zenbateko nominalaren eta interes efektiboaren artean bereiztea.
- Banku-komisioak deskribatzea eta kalkulatzeko.

4. Oinarrizko banku-eragiketak:

- Banku-kontuak eta kreditu-kontuak likidatzeko.
- Efektu sorta baten balio likidua kalkulatzeko.
- Mailegu batean esku hartzen duten aldagaiak aztertzea eta amortizazio-taulak egitea ohiko metodoen bitartez.
- Banku-eragiketekin lotzen den dokumentazioa betetzea.
- Finantza-produktuak kostu/errentagarritasun aldagaien arabera alderatzeko.
- On-line banku-aplikazioak kontsultatzea eta baliatzea.

5. METODOLOGIA

Sekuentziazioa

Modulu honetarako ezartzen diren eduki-unitateen sekuentziazioak ikaskuntza-emaitzen garapenari erantzungo dion eta ikasleek edukiak barneratzea erraztuko duen ibilbide didaktikoari jarraitu behar dio. Helburua da ikasleek lotutako konpetentzia profesionalak eskuratzea, testuinguruan kokatutako zeregin esanguratsuetan aktiboki parte hartuz.

Modulu honek Ethazi metodologia (modulu artekoa) erabiltzen duenez, adierazi behar da edukien sekuentziazioan eragina izan dezaketela beste modulu batzuetako edukiak. Horregatik, garrantzitsua da irakasle-taldearen artean koordinazioa egotea, zenbait eduki irakasteko une egokia erabakitzeak. Koordinaziorik ez badago, gerta daiteke ikasleek erronka bat egin behar izatea, oraindik hori gauzatzeko beharrezkoa dena ikusi gabe. Zehazki, modulu honek "Aholkua ematen dizugu" erronkan parte hartzen du, 15 bat orduko ekarpenarekin.

Hortik abiatuta, modulu honetarako ikaskuntza-prozesua has daiteke honako sekuentziazio-proposamen honekin:

1. Espainiako finantza-sistema
2. Pasiboko, aktiboko eta zerbitzuetako banku-eragiketak
3. Interes sinplea eta banku-deskontua
4. Aseguru-erakundeak eta haien eragiketak
5. Interes konposatua eta errenta konstanteak
6. Mailegu eta leasing bidezko eragiketak
7. Kobrantza- eta ordainketa-eragiketak
8. Diruzaintzaren aurreikuspena. Aurrekontuak.
9. Kasu praktiko globalizatuak

Hala ere, banaketa horrek ez du esan nahi, beraz, ordena hori izan behar denik irakatsi eta ikasteko prozesuan, ezta modu independente eta sekuentziazioan jorratu behar direnik ere (ikus 1. eranskina).

Alderdi metodologikoak

Ikasgelan honako metodologia hau aplikatuko da:

- - Ikasturtearen hasieran modulua aurkeztea. Ezaugarriak, edukiak, ikasleek eskuratu beharko dituzten gaitasunak, jarraituko den metodologia eta aplikatuko diren ebaluazio-irizpideak azalduko dira.
- - Lan-unitate bakoitzaren hasieran jardutea eta alde aurreko ezagutzak eta gaitasunak aztertzea. Sarrera hori galdera batzuen bidez edo egoera jakin bat aurkeztuz egingo da, ikasleak motibatzeak eta gaiarekiko interesa pizteko.
- - Edukiak azaltzea- Klase magistralak egingo dira eta, ondoren, garapen-suposizio praktikoak. Helburua da ikasleak gai izatea beharrezko kontsulta- eta ikaskuntza-tresnak erabiltzeko, suposizio praktiko bat

gauzatzeko urrats guztiak buruz ikasi baino gehiago. Irakasleak, hasiera batean, ikaskuntza-egoeren prozedurak gauzatzen esku har dezan saiatuko da, ikasleen ondorengo esku-hartzeetarako eredu orientatzaile bat sortzeko. Ordutik aurrera, ikasleen lanean gero eta autonomia handiagoa dagoela ikusi behar da.

- -Irakasleen banakako lana- Garapen-jardueretan erabiliko da edukiak lehen aldiz ikasten direnean eta batez ere sendotze-jardueretan. Horrela, indibidualizazio-maila handiagoa lortzen da, ikaskuntza-erritmoa ikasle bakoitzaren aukeretara egokituz eta ikaskuntza-prozesuaren jarraipen zehatzagoa eginez.
- -Talde txikietako lanak- Mota horretan, lanak aldi berean komunikatzeko, partekatze eta egiteko trebetasunak sustatzen dira, kideen parte-hartze aktiboa kontuan hartuta. Helburua da ikasleek besteen iritzia errespetatzen eta baloratzen ikastea, eta helburu komun baten alde laguntzea. Egin beharreko datuek, suposizioek eta dokumentazioak ikaslearentzat esanguratsuak izan behar dute, eta bizitza errealeko edo lanbide-jarduerako egoerak irudikatu behar dituzte.

Garrantzitsua da azpimarratzea ikasleek egoera bat ulertzeko, aztertze eta erabaki egokiak hartzeko gaitasuna garatu behar dutela. Gainera, prozeduraren zatirik mekanikoa eta operazionala egiten duten tresna informatikoak izango ditu.

Bestalde, ziklo honek ETHAZI ikaskuntza-metodologian parte hartzen duenez, erronkak garatzeko beharrezkoak diren dokumentuak ditugu, dok.tartanga.eus/erronketan plataforman daudenak:

- a. Kronograma (erronken mapa)
- b. Ikaskuntza-emaitzen sarea (kiniela)
- c. Erronkaren deskribapena (irakaslearen dokumentua)

Modulu honek bigarren mailan programatutako erronketako batean parte hartzen du: 2. ERRONKA "AHOLKU EMATEN DIZUGU!". 1. ebaluazioan egiten da.

6. BALIABIDEAK

a) Baliabide materialak

- arbela
- Gela.
- Testu liburua
- Kontsulta-liburuak.
- Diruzaintzako administrazio-kudeaketako dokumentuak.

b) Baliabide teknologikoak

- Ordenagailuak.
- Proiektagailua.
- Kalkulu-orriko programa informatikoa.
- Interneteko konexioa
- Moodle/Classroom plataforma

c) Giza baliabideak

- Irakasletoa eta laguntzako irakasleak.
- Bisita Espainiako Bankura

7. EBALUAZIO-SISTEMAK

• Etengabeko ebaluazioa eta ebaluazio-kopurua

Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa jarraitua izango da, eta erregularitasunez joan beharko dute modulurako programatutako eskoletara eta jardueretara.

Ikasle bat eskolara erregularitasunez joaten dela ulertuko da bertaratze-hutsegiteek programatutako orduen % 20 gainditzen ez dutenean, ehuneko horretan justifikatutako eta justifikatu gabeko hutsegiteak barne hartuta.

Orduen % 20 baino gehiago falta diren ikasleek ebaluazio jarraiturako eskubidea galduko dute, eta 1. amaierako eta 2. amaierako deialdietara aurkeztu ahal izango dira moduluaren eduki guztiekin. Saileko kideek aztertuko dituzte kasu bereziak.

Ikasleek eskoletara sartzeko orduan izaten dituzten atzerapenak ez dute sartzea eragotziko, baina honako kontsiderazio hau izango dute: - 0tik 10 minutura atzerapentzat hartuko da; - 11 minututik aurrera hutsegitezat hartuko da.

Modulu honek ez duenez erronketan oinarritutako orduen % 100, ebaluazio metodo tradizionalak mantenduko ditugu. Horrela, ebaluazio-saioak egingo dira ikastetxeko zuzendaritzak ezarritako egutegiaren arabera. Ikaskuntzaren emaitzak eta zeharkako gaitasunak ebaluatuko dira. Ikaskuntza-emaitzak ebaluatzeko hainbat tresna erabiliko dira: talde-lanak eta azterketak. Zeharkako gaitasunen neurketa taldeko irakasle-talde osoak egingo du batera, eta SETaren bidez egingo da.

Ikaskuntza-emaitzak (% 80) eta zeharkakoak (% 20) ebaluatzeko errubrikak erabiliko dira zeinak ikasleek erronkaren hasieratik ezagutuko baitituzte. Errubrikak dok.tartanga.eus/erronkak plataforman egongo dira eskuragarri, eta erronkaren dokumentuan ere zehaztuko dira.

Ikasle batek errespetu-falta larria badu irakasleren batekin edo ikasleren batekin (irainak, keinuak, mehatxuak), eten egingo ditu zeharkakoak.

Kalifikazioa gainditua izateko, gutxienez 5 lortu beharko dira bi blokeetako bakoitzean, hau da, ikaskuntzaren emaitzak eta zeharkako gaitasunak gainditu behar dira. Gainera, ikasleak 3 ebaluazioak gainditu beharko ditu

edo lehenengo bien batez besteko aritmetikoa egitean 5eko nota lortu beharko du (gutxienez 4,5 izan beharko dira proba bakoitzeko IEOfetan). Gainditzera iritsi ezean, ez da erdibiderik egingo batzuen eta besteen artean. Hirugarren ebaluazioa lan-zentroetako prestakuntza egiteko izango da.

Lortutako nota gorantz biribilduko da zati hamartarra 0,50ekoa edo handiagoa bada, baina biribiltze hori ez da gorantz aplikatuko 5 lortzeko.

Lantokiko prestakuntza-aldian enpresak egiten dituen zeharkako kalifikazioak kontuan hartuko dira, baldin eta praktika-koadernoak behar bezala beteta eta finkatutako egunetan aurkezten bada. Entregaren bat atzeratzen bada edo entregarik egiten ez bada, ikasleek zeharkako horiek bertan behera utzi ahal izango dituzte. Ikasleei dagozkien errubrikak emango zaizkie prestakuntza hori hasi aurretik.

- **Berreskurapenak eta egin gabekoen tratamendua**

- ✓ Berreskurapenak

Ebaluazio bakoitzaren ondoren, tutoreak ikaskuntza-emaizten bilakaerari eta zeharkako gaitasunei buruzko feedbacka eskainiko die ikasleei tutoretza-saio batean. Ikasturtean zehar garatutako erronkaren feedbacka parte hartzen duten irakasleek egingo dute, tutoretza pertsonalizatuen bidez, denborak banatuz. Modulu honetako erronketan parte hartzen duen irakasle-taldeak definitu eta jakinaraziko dio ikasleari nola berreskuratu ahal izango dituen erronken emaitzak.

Proba edo gomendioren batean **ebaluazio negatiboa** egin ondoren, errekupeazio-proba bat proposatuko da, landutako ikaskuntzaren emaitzei buruzko etengabeko ebaluazioaren kontzeptuaren barruan.

Azterketa bat onartzen ez bada, idatzizko errekupeazio-proba bat proposatuko da. Erronka bertan behera geratzen bada, gainditu gabeko zatia errepikatzea edo proba bat egitea proposatuko zaie ikasleei. Emaizta negatiboa gainditzeko modua zehaztuko da ikasleari emandako dokumentazioan. Errekupeazioan lortuko den gehieneko kalifikazioa 5 izango da.

Ebaluazioan etenaldia zeharkako gaitasunetan gutxienekoa ez gainditzearen ondorio bada, gaitasun horiei buruz egiten den hurrengo neurketan berreskuratu ahal izango dira. Errekupeazioaren nota 10etik 5 puntukoa izango da. Azken ebaluazioa bada, hausnarketa-lan bat proposatuko zaio etetearen arrazoiei buruz eta zikloaren hezkuntza- eta lanbide-eremuan eskatzen diren gaitasunen azterketari buruz. Egindako lanaren aurkezpenean egin beharko du taldeko irakasle-taldearen aurrean. Errekupeazioan lortuko den gehieneko kalifikazioa 5 izango da.

Modulua gainditu duten ikasleak ez dira 1. finalera aurkeztu beharko, nota hobetu nahi ez badute. Hala ez bada eta modulua gainditzen ez bada, 1. amaiera horretara aurkeztu ahal izango da, emandako eduki guztiekin. Hala egin ezean, etengabeko ebaluazioan lortutako notarekin kalifikatuko da. 1. finala ere gainditzen ez bada, 2. finalera aurkezteko aukera egongo da, eduki guztiekin. Ez aurkezteak **ez aurkeztutzat** joko da.

- ✓ Egin gabekoen tratamendua

LEHEN ETA BIGARREN AZKEN EBALUAZIOAN kalifikazio negatiboa lortu duten ikasleek ezohiko BI

deialdi izango dituzte hurrengo ikasturtean.

Salbuespen gisa, oinarrizko arauan ezarritako lau deialdiak agortu dituzten pertsonak ezohiko deialdi bat (graziazko deialdia) izan ahal izango dute, baldin eta gorabeheraren bat gertatu bada, hala nola amatasuna, mendeko pertsonen arreta, gaixotasuna edo desgaitasuna, edo ikasketen ohiko garapena baldintzatu edo eragotzi duten beste batzuk.

Egutegiari, proba motei eta/edo gainditzeko jardueri buruzko informazioa emango da, ikasleak prestatzeko elementuak izan ditzan eta kalifikazio positiboa lor dezan.

8. KALIFIKAZIO-SISTEMAK

Modulu honen kalifikazio orokorrean konpetentziak ebaluatzeko pisu espezifikoak honako hau izango da: - Gaitasun teknikoak

- % 80 - Zeharkako gaitasunak
- % 20 Kalifikazio orokorra honako

JARDUERA MOTA hauen bidez lortuko da: Oharra: "Aipatutako zeharkako gaitasunak aipatutako erronka eta unitate didaktikoetan ebaluatuko direnak dira. Erronka bakoitzean zehaztuko da zeintzuk eta nola kalifikatuko diren".

MOTA TIPO	%	ID	% empresa	% aula	UNEA / MOMENTO	TRESNA / HERRAMIENTA
K.T.	%80	IE1	10	20	UD1	LANA / AZTERKETA
					UD2: ERRONKA	LANA / AZTERKETA
					UD8	LANA / AZTERKETA
					UD4	LANA / AZTERKETA
					UD5	LANA / AZTERKETA
					UD9	LANA / AZTERKETA
					EMPRESA	ENPRESAREN TXOSTENA
		IE2		20	UD8	LANA / AZTERKETA
					UD9	LANA / AZTERKETA

					UD3	LANA / AZTERKETA
		IE3		30	UD6	LANA / AZTERKETA
					UD9	LANA / AZTERKETA
					UD2: ERRONKA	LANA / AZTERKETA
		IE4		20	UD7	LANA / AZTERKETA
					UD9	LANA / AZTERKETA
C.TR	%20	CTR1	3	7	UD GUZTIAK/ENPRESA	SET PLATAFORMA ENPRESAREN EBALUAZIO TXOTENA
		CTR2	8	22	UD GUZTIAK/ENPRESA	SET PLATAFORMA ENPRESAREN EBALUAZIO TXOTENA
		CTR3	3	7	UD GUZTIAK/ENPRESA	SET PLATAFORMA ENPRESAREN EBALUAZIO TXOTENA
		CTR4	8	22	UD GUZTIAK/ENPRESA	SET PLATAFORMA ENPRESAREN EBALUAZIO TXOTENA
		CTR5		20		

OHARRA: zeharkako gaitasunak, aipatutako erronka eta unitate didaktikoetan ebaluatuko direnak dira. Erronka bakoitzean zehaztuko da zeintzuk eta nola kalifikatuko diren.
ZG5 (DIGITALA) ikasturteko modulu guztietan kalifikatutko da, baina EAU moduloan jasoko dira kalifikazio horretarako ebidentziak.

9. IKASTURTE HONETAKO MEMORIA (2024_2025) ETA DATORREN IKASTURTERAKO ALDAKETAK/ PROPOSAMENAK

*(*Soilik ikasturte amaieran betetzeko)*

A. Ikasturtean zehar programazioan egindako aldaketak

Azken 9. unitatea, "kasu praktiko globalizatuak", ezin izan da sakon landu. Klase magistral baten bidez kasu oso bakarra aztertu da, ezin izan da errefortzu-ariketa gehiago egin. Hala ere, programazioa osorik eman ahal izan da.

B. MEMORIAREN ONDORIOAK.

- Datorren ikasturterako programazioan egin daitezkeen aldaketak.
 - i. Programazioaren eta denboralizazioaren edukiak
Hurrengo ikasturterako JIMAKo ordu berak mantenduko dira eta, beraz, ez da aldaketarik izango
 - ii. Ebaluazio eta kalifikazioaren sistema
Programazio honen 8. atalean definitutako ikaskuntzaren emaitzen bidez ebaluatuko da.
 - iii. Ikasgelaren eragiketak
Bi ebaluazioetan ikasgelan egin diren jarduerak irakaslearen koadernoan jaso dira. Jarduera horiek egokitzen jotzen direnez, ez da 25-26 ikasturterako aldaketarik baloratu.

ANEXO I:

Ikasketa Emaitzak IE Resultados de Aprendizaje RA										UNITATE DIDAKTIKO EDO ERRONKEN BANAKETA DESGLOSE EN UNIDADES DIDÁCTICAS O RETOS		ZEHARKAKO GAITASUNAK ZG				GOH Garapen Iraunkorrek o Helburuak ODS Objetivos de Desarrollo Sostenible	Ordua k 1EB Horas 1EV	Ordua k 2EB Horas 2EV	Ordua k 2EB Horas 3EV	
												COMPETENCIAS TRANSVERSALES CT								
1	2	3	4	5	6							E R	I I	A A	K C					
X										UD1	Finantzaren sistema	X	X	X	X		6			
X			X							UD2	Pasiboko, aktiboko eta zerbitzuetako banku-eragiketak Erronka: Aholku ematen dizugu	X	X	X	X	4,5,9	28			
		X								UD3	Interes sinplea eta banku-deskontua	X	X	X	X		20			
X	X									UD8	Aseguru-erakundeak eta haien eragiketak	X	X	X	X		6			
		X								UD6	Interes konposatua eta errenta konstanteak	X	X	X	X		6	16		
			X							UD7	Maileguak eta leasinga dituzten eragiketak	X	X	X	X			22		
X										UD4	Kobrantza- eta ordainketa-eragiketak.	X	X	X	X			10		
X										UD5	Diruzaintzaren aurreikuspena. Aurrekontuak.	X	X	X	X			10		
X	X	X	X							UD9	Kasu praktiko globalizatuak	X	X	X	X			4		
X											ENPRESAN EGINDAKO ORDUAK/ HORAS EN LA EMPRESA	X	X	X	X				21	
												GUZTIRA					66	62	21	149

Institutu-egutegiaren arabera 149 ordu lan egiten dira, beraz beste ikasgai bati 2 ordu eman behar zaizkio